



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko abuztuaren 20a

58 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Nafarroako enpresak nazioarteratzeko Gobernuaren planari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Eusko Y abiadura handiko lerroa eraikitzeko obretako balizko atzerapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Izaba-Arette errepidearen mantenimenduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Castejonen enaren habiak hondatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Parke Natural izendatu baino lehenago egin behar den Aralar Mendiko natur balia bideak antolatzekeo planari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 90052-5 “Tuterako Parkeko Obrak” aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Atarrabiako nekazaritza laborategiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- “Jabetza birrantolatzekeo obrak, lurzati kontzentrazioa” izeneko 97030-2 eta 97009-4 lerroen aurrekontu-burutzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Cortes ondoko Gallurren hondakin likido pozoitsu eta arriskugarrientzako errauskailua jartzearen osasun-ondorioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Alzheimer-ak jotako pertsonen arreta egiteko aurreikusitako neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Osasun-kostuei aurre egiteko zerga berria ezartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Eskualde batzuetan agertutako aztarna arkeologikoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Barañaingo lehen mailako zentroetan Haur Hezkuntzan aurreikusitako tokiei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Bidausiko Mankomunitatetik etorrira, Gongoran izaniko hiri hondakin solidoen isurketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Ureztalur berriak sortzeko aurrekontu-programazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20.or.).
- Nafarroako Gobernuak Klinika Unibertsitarioarekin duen itunari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Gurutze Gorriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia. Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (27. or.).

F Saila:
GALDERAK

Nafarroako enpresak nazioarteratzeko Gobernuaren planari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Nafarroako enpresak nazioarteratzeko Gobernuaren planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Nafarroako enpresak nazioarteratzeko Gobernuaren planari buruz, idatziz erantzun diezaiozoten, egindako galdera dela eta, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1. Nafarroako enpresak nazioarteratzeko Gobernuaren plana zertan datza?

Dakizuen bezala, bai Gobernuak bai Kontseilariak inbestidurako hitzaldian, bai Kontseilariak Parlamentuko Batzordean egindako agerraldian, helburu bat jarri genuen: Nafarroako enpresak nazioarteratzea. Hau da, Nafarroako enpresen esportazioa har dezaten beren produktuak saltzeko estrategia bezala, bai eta Nafarroako enpresak kanpoko merkatuetan nabarmenki eta era iraunkorrean sar daitezten atzerriko merkatuetan, haien agerpen fisikoa handituz eta beraz esportazio tasak hobetuz, hain zuzen ere, enpresen lehiakortasuna atzerrian duten merkatu kuotaren arabera neurtzen delako.

Datozen urteetan nazio mailako merkatuan baizik jarduten ez diren enpresak desabantailan egon behar dira, eta arriskua ez da gero atzerriko merkatuetan arrakastarekin lehiatzeko modurik ez

izatea, baizik eta nazio mailako merkatuan duten kuota galtzea ere atzerriko lehiakideen aldean. Horregatik, Nafarroako enpresak nazioarteratzeko beharrik ahalegin bat eskatzen du kanpoko merkatuetara atera eta beraietan sendotzeko, eta Gobernu honek, horren inguruan inongo zalantzarik ez baitu, Nafarroako enpresak nazioarteratzeko lehenbiziko nazioarteratzeko plana prestatu du Nafarroako enpresentzat. Plan hori orekatua, koherentea, egia eta hagitza osoa da, eta aurrekontuetako kontusailetan dauden baliabideekin, alegia, 1997rako Nafarroako Parlamentuak onetsitakoekin, burutuko da.

Gainera, asmoa dago plan marko estrategiko bat burutzeko epe ertain eta luzean –plan hori burutzeko lehiaketa bat aterako da aurrean–, Nafarroako enpresen benetako egoera, arazoak, beharrik eta helburuak aztertzeko, eta 3-5 urterako lanbide-plan bat, goitik behera zenbaterokotua, markatu ahal izateko. Espero dezagun plan horrek zure Parlamentari Taldearen eta Biltzarren onospena izatea.

Nazioarteratzeko lehen plan honek oinarritzko 5 programen bidez garatuko da:

- a) Informazio programa.
- b) Prestakuntza programa.
- c) Sustapen programa.
- d) Enpresen arteko lankidetzarako programa.
- e) Lehentasuneko enpresa jardueren programa.

Programen testu osoa eta garapena bidaltzen zaizue bereziki prestatutako dokumentu batean, jada Nafarroako enpresei banatu zaiena.

Giza baliabideei dagokienez, helburu jakin horretarako prestatu diren Departamentuko hiru pertsonen gain, zuk ongi ezagutzen duzun Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara Ofiziala-

ren laguntza ere izanen da, hain zuzen ere, Atzerriko Merkataritzako Departamentuarena, eta kanpoko aholkularitza espezializatu bat ere kontratatuko da. Azken horretarako lehiaketa egin da (1997ko maiatzaren 2ko N.A.O.) eta 1997an burutuko da teknikoki.

Baliabide ekonomikoei dagokienez, 400 milioi pezeta daude 5 aurrekontu-kontusailetan banatuta. Planaren guztirako kostua 518 miliokoa izanen da. Bataren eta bestearen arteko aldea Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbarak berak eta nazioarteratze planean arituko diren enpresek ordainduko dute.

Jarduketaren egutegia.

A) Informazio programak.

1. Internet: Interneteko esportazio eskaintza lehiaketara atera da (1997ko apirilaren 21eko N.A.O.), eta maiatzaren 15ean ebatziko da. Burutzeko epea hiru hilabetekoa da.

2. Herriei buruzko jardunaldiak: zortzi herriei buruzko jardunaldi monografiko hauek urtean zehar burutuko dira. Horietako batzuk jada burutu dira: Peru (apirilean), Colombia (maiatzaren 20an), Italia (ekainaren 6an), Turkia (ekainan), Alemania eta Portugal (urrian), Korea (azaroan), Taiwan (abenduan).

3. Informazio jardunaldi puntualak: 1997an hiru jardunaldi antolatuko dira, egoki direnean. Aurreikusitakoaren arabera, bat uda baino lehen egingen da eta beste biak urrian.

B) Prestakuntza programak.

1. Nazioarteko merkataritzako masterra: orain 9. edizioa burutzen ari da. 10.a 1997ko urrian hasi eta 1998ko ekainan bukatuko da; 500 eskola ordu izanen ditu. Gero, ikasleek 6 hilabeteko praktikak egingen dituzte Nafarroako enpresetan. NUP da master hori ematen duena, Nafarroako Gobernuaren eta Merkataritza Ganbararen laguntza tekniko eta finantzarioarekin. Masterrak, funtsean, praktikoa izaten jarraituko du, era horretan zerbitzu on bat eskainiz Nafarroako enpresei, izan ere behar den giza-kapital espezializatua eskuratzeko modua dutelako.

2. Jardunaldi teknikoak-ikastaroak: jardunaldi tekniko hauek hiru modulutan burutuko dira. Ikastaroak guztira 140 ordu izanen ditu, irailaren 18tik hasita. Jardunaldiak ostiralez, egun osoan, eta larunbat goizez egingen dira (12 eskola ordu aste-buruko).

3. Mintegiak: hiru izanen dira. Lehenbiziko biak, dokumentazioko eta nazioarteko logistikako kredituak baizik izanen ez direnak, Merkataritza

Ganbarak antolatuko ditu, lehenbiziko seihilekoan (maiatza-ekaina). Hirugarren mintegia, kanpoko finantzazio publiko eta pribatuari buruz –kasu honetan koordinazio lanak kanpoko aholkularitza espezializatu batek egingen ditu–, urteko laugarren hiruhilekoan egingen da (abenduko 2. eta 3. asteetan).

4. DEI, CIEX lanbidedun berrien prestakuntza/birziklaia:

DEI birziklaia: irailak 3.

CIEX birziklaia: irailak 5.

5. DEI/CIEX lanbidedun berrien prestakuntza:

DEI tutoreen/CIEX aholkularien deialdia: maiatzak 1.

Izangaien elkarrizketak + azterketa: maiatzak 29-30.

1. DEI. prestakuntza: ekainak 12-13.

2. DEI. prestakuntza: ekainak 26-27.

3. DEI. prestakuntza: irailak 3.

1. CIEX prestakuntza: irailak 4-5.

2. CIEX prestakuntza: irailak 18-19.

3. CIEX. prestakuntza: urriak 2.

C) Sustapen programak.

1. Esportazioaren hastapenak (PIE), bere bi aldietan: DEI eta CIEX: urtean zehar burutuko da tutore eta aholkularien aurreko deialdiei jarraituz. Enpresen esportaziorako plan estrategikoa homologatzeko espedienteen azterketa ekainaren 12-13an egingen da.

2. Kanpoko sustapen plana (PROMEX): deialdia apirilaren 30ean zabaldu da, eta maiatzaren 30ean bukatuko da. Ondokoak izanen dira egingdako inbertsio/gastuak justifikatzeko epeak:

– 97ko lehen seihilekoan egindako jardueretarako, irailaren 15ean.

– Gainerako jardueretarako, azaroaren 30ean, non ez diren azaroan eta abenduan buruturiko jarduerak, izan ere, horiek 1998ko urtarrilaren 15a baino lehen justifikatu beharko baitira.

3. Negozioen sustatzaileak: 1997rako aukeratu diren merkatuak Alemania (jada funtzionatzen ari dena), eta Polonia eta Mexiko (2. seihilekoan). Herri horietako merkataritza bulegoetan kokatuko dira, Nafarroako enpresek produktuak edo zerbitzuak direla-eta egiten dizkieten eskaerei erantzuteko modua izan dezaten.

4. Sustapen taldeak: sektore bereko 6/7 enpresetarako 4 sustapen talde sortuko dira (1997ko lehen seihilekoa). Esportazio partzuergo moduan

bat besterik ez dago (OFEXCO). Beste hiru sortuko dira, horietako bakoitza 3 enpresek osatua eta Merkataritza Ganbarak gauzatu, Nafarroako Gobernuaren laguntza finantzarioarekin (1997. urtean zehar).

5. Lanaldi partzialeko esportazio kudeatzailea (L.P.E.K.): Merkataritza Ganbarak L.P.E.K.aren figura eta haren jardura eremua diseinatuko ditu, eta kanpoko aholkularitza espezializatu batek L.P.E.K.ak garatu, haien gaineko informazioa zabaldu, eta aurkeztuko ditu.

D) Enpresen arteko lankidetzarako programa.

Programa europarren bidez garatuko da: Interprise, Europartenariados, haietarako deialdia egin eta enpresen arteko lankidetzarako proiektuak egiten direnean: Cauca-Colombia (maiatzaren 19, 20 eta 21ean); Rio Negro, Mendoza-Argentina; lehenbiziko biak lehen sehirekoan eta gainerakoak urtearen 2. sehirekoan.

E) Lehentasunezko enpresa jardueren programa.

1997. urtean zehar burutuko dira, Nafarroako enpresa eta erakundeekin eta estatu mailakoekin; ICEXen eginkizunetara, erregioen arteko foroetara eta marken klubetara ere joateko aukera izanen da.

Era berean, Leipzigko Azokako partehartze aktiboaz gainera, zuk ongi ezagutzen duzuna, Perú-Brasil bidaia instituzional eta merkataritzako eginkizun den horretan hartuko da parte (maiatzean), eta irailean Nafarroako elikaduraren sektorea Koreara (Seul) eramateko merkataritza bidaia ere prestatzen ari da.

2. Nafarroako Merkataritza Ganbarak plana burutzean duen zerikusia.

Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara Ofizialak funtsezko papera izanen du nazioartetazko plana burutzeko orduan.

Horretarako, maiatzaren 5ean nazioarteko merkataritzari buruzko lankidetzarako akordio bat sinatu dute, zeinak merkataritza politikaren arloan Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari nahiz Merkataritza Ganbarari dagozkien helburuak lortzea erraztuko duen hitzarmen marko bat ezartzeko balioko baitu. Hitzarmenerako marko horren barnean, Merkataritza Ganbara tresna bat da atzerriko merkatuetan presentzia lortu edo daukatena hobetu nahi duten Nafarroako enpresa guztientzako languntza bideratzeko, nola eta Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Nafarroako enpresak nazioartetatzeko 97 programa burutzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak emanez.

Merkataritza Ganbarak 24.700.000 pta. emanen ditu planaren jarduerak batera finantzatzeko eta Atzerriko Merkataritzako Departamentua bera ere eskainiko du, dituen giza baliabide guztiak barne, planaren burutzapena eta funtzionamendua hobek izan daitezkeen.

3. Nafarroako Merkataritza Ganbarak planari egingo dion ekarpena, 3/1993 Legeak horrelako korporazioei ezarri dien betebeharren kontura izango al da?

Nafarroako Merkataritza eta Turismo Ganbarak nazioartetazko planean egin duen ekarpena Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbarei buruzko 3/1993 Legeak ezarritako eginbeharretako bat da, esportazioen sustapenerako ganbaren planari egiten dion ekarpenagatik, bereziki merkataritza bidaiei eta eginkizunei dagokienez.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 23an

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria, Ramón Bultó Llevat

Eusko Y abiadura handiko lerroa eraikitzeako obretako balizko atzerapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Eusko Y abiadura handiko lerroa eraikitzeako obretako balizko atzerapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentari Taldeko Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak “Abiadura Handiko Nafarroako korridorea”rekin loturiko zenbait aspekturi buruz egindako galdera dela eta, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1. Zer egin da edo egiten ari da inbertsioa beste lerro batzuetara joan ez dadin eta aurrekisiriko finantzazioa gal ez dadin?

Nafarroako Foru Komunitateak, Espainiako gainerako komunitate autonomoek bezala, ez du eskumenik Estatuko burdinbide zabaleko sarearen gainean, beraz, bai Foru Komunitateko oraingo sarea hobetzea, bai lerro berriak burutzea, Estaturako onesten diren burdinbide planen menpe gelditzen dira, bai eta aurrekontuetako baliakizunen arabera ezartzen diren jardueralehentasunen menpe ere.

Aurrekoa ezertan kaltetu gabe, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua aspaldiko partez ari da bai RENFErekin, bai unean uneko Ministerioarekin kudeaketak egiten Nafarroako burdinbide sarea nabarmenki hobetzeko.

Azpiegituren Plan Zuzentzaileak, 1993-2007 A.P.Z.k, Espainiako Gobernuak 1994ko martxoan onetsia eta Estatuaren Parlamentuak 1995eko abenduan berretsia, Espainiako abiadura handiko etorkizuneko sarearen eskema moduan -1. irudia-, ondokoa ematen du:

“Abiadura handiko lerro nagusi antolatzailea, Sevilla-Madril-Bartzelona-Frantziako muga,

zehaztu ondoren, aurrekusi diren gainerako jarduerak hurrengo bideetatik joanen dira:

a) Nazioarteko harremanak osatzea Euskal Herritik lotune berria eginda, “Eusko Y” eraikiz eta bera lotuz Nafarroako Korridorean zehar egiten den lerro nagusiarekin”.

b) eta c) puntuak Espainiako beste alderdi batzuetako jarduerekin dute zerikusia.

Aipatu Planaren beste jardueren programazioari dagokionez, arlo honetarako 1993-2007 aldirako Estatuko Aurrekontu Nagusietan aurreikusitako inbertsioak, “Lerro nagusi antolatzailea” izenekoa osatzeko erabiliko dira. Horrek, beste aldetik, arazoizkoa ematen du, izan ere gainerako jarduera guztiak, baita Nafarroako Korridorea ere, horren arabera artikulatuko direlako.

Espainiari dagokionez, eskema hori bera da Horizonte 2010, Garraiorako Europar Zeharko Sarrerako Planaren azaltzen dena, hain zuzen ere burudindidearen atalean, 2. irudian.

Aurrekoarekin bat, eta galdera horri erantzuteko, ondokoa aipa daiteke:

Lehenbizi: Abiadura handiko lerro berriei dagokien egiten ari diren jardueren programazioan Azpiegituren Plan Zuzentzailean aurreikusitakoa betetzen da, eta ezin da, beraz, inbertsioen desbideraketaz hitz egin.

Bigarren: Abiadura Handiko Nafarroako Korridoreari buruz Gobernu honek egin dituen kudeaketan helburua izan da behar diren ikerlan eta proiektuen burutzea azkartzea. Bide horretan, azpimarratzekoa da Sustapen Ministerioa “Abiadura Handiko Nafarroako Korridorearen Alternatiben Ikerlana” burutzen ari dela. Ikerlan hori gauzatzen parte aktiboa izaten ari da Departamentu hau, bereziki horretarako izendatutako jarraipen batzordearen bidez.

2. Zer lortu du Nafarroako Gobernuak Arku Atlantikoko Batzordean, Batzorde horrek aintzat har dezan bere proposamenetan Madrill-Irun lerroa egitea?

Arku Atlantikoko Batzordea 1989ko urrian osatu zen, eta Nafarroa 1995eko urrian sartu zen Batzorde horretan.

Ordura arte Batzorde horretan parte hartutako komunitate autonomoak Kantauriko lau komunita-

te autonomoak ziren, alegia, Galizia, Asturias, Kantabria eta Euskal Autonomia Erkidegoa, eta horrek suposatu zuen garai hartan Batzordeak Espainiarako egin zituen burdinbide eskema guztiak, beraiek antolatzen dituen ardatzera bideratuta egotea, alegia, Madril-Valladolid-Gasteiz-Irun ardatzera. Nafarroa Batzordean sartzeak elementu berriak ekarri zituen, eta neurri batean aurreko planteamenduak aldatu beharra zegoen. Horrek zenbait zailtasun ekarri zituen.

Joan den abenduko 16an eta 18an Bilbon Arku Atlantikoaren burdinbidearen irudiari buruzko mintegia egin zen. Hartan Batzorde horretan sartutako komunitate autonomoez gain, Sustapen Ministerioak eta Renfek partehartze nabarmena izan zuten. Mintegi horretara aurkeztutako ponentzien –hainbat bat Abiadura Handiko Nafarroako Korridoreari buruzkoa izan zen– amaierako balorazio moduan, hainbat ondorio onetsi ziren; ondokoak aipa daitezke beste batzuen artean:

– Abiadura Handia: Eusko Yren proiektua gehi Nafarroako Korridorea eraikitzearen garrantzia, Azpiegituren Plan Zuzentzaileak emandako zereginarekin, horretarako justifikazio bezala emanen bai bidaiarien bai merkantzien garraiorako Estatu mailako lehen korridorearen barrenean sartzea. Korridore horrek Euskal Autonomi Elkarte-Ebroko Ibarra-Kataluña loturan egituratzen da.

– Sare arrunta hobetzea. A.P.Z.an ere sartuta dagoen “Guadarramako Saihesbidea” izenekoak egin beharra, izan ere, ordubete baino gehiago gutxituko lituzkeelako Espainiako iparmendebaldeko koadrantearen eta Madril-Erdigunearen arteko burdinbideko komunikazioak.

3. Zer jarrera du oraingo Nafarroako Gobernuak azpiegitura honi buruz eta Gaztela-Leongo Erkidegoarekiko lehiari buruz? Ezer egin al du honen gainean?

Azpiegituren Plan Zuzentzailean adierazitakoaren arabera, ez dago inongo lehiarik Abiadura Handiko Nafarroako Korridorearen eta Guadarramako Saihesbidearen artean; aldiz, arazo desber-

dinetarako bi irtenbide desberdin bezala hartu behar dira:

– Abiadura Handiko Nafarroako Korridorea, abiadura handia eta zabalera europarra ezaugarri dituen, lerro nagusi antolatzailearen abiadura handiko nazioarteko bigarren lotura izanen da –Sevilla-Madril-Zaragoza-Bartzelona ardatza–, eta azken fasean Eusko Yrekin baterako trazadura izanen du.

– Guadarramako Saihesbidea: Espainiako Erdigunea eta Iparmendebaldea lotzen dituen burdinbideak hobetzeko; RENFE zabalera eta abiadura handia izanen ditu ezaugarri.

Era berean jakin nahi da azken txostenaren edukia, eta Arku Atlantikoko Batzordeak hartu dituen erabakiak Espainiako Estatuko abiadura handiko lerroen aurreikuspen eta kokapenari buruz.

Bilbon, martxoaren 12an egin zen Arku Atlantikoko Batzordeko Garraio Taldearen bileran, Arku Atlantikoko Intermodalitateko oinarrizko agiriaren bigarren zirriborro bat aurkeztu zen, INTERREG II-C Programarako garraioen atalean ere aurkeztuko dena. Proiektu hori burutzeko lerro nagusiak biltzen ditu, gerorako utzita dagokion eranskina egitea. Agiri horretan bilduko dira garraio modu bakoitzean eta intermodalitatean eginen diren jarduera zehatzak.

Aurreikusita dago aurreragoko batean maila teknikoko lan bilera bat egitea Batzorde horretako Espainiako komunitate autonomo guztien artean, hain zuzen ere, eranskin hori zehaztu eta onesteko, Espainiako esparruari dagokionean. Arku Atlantikoko Burdinbidearen Irudiari buruzko Mintegian aipatu ziren ondorioekin bat, uste izatekoa da lurralde-esparru honetako abiadura handiko lerroen barrenean Abiadura Handiko Nafarroako Korridorea ere sartuko dela.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 23an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria,
José Ignacio Palacios Zuasti

Izaba-Arette errepidearen mantenimenduari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Izaba-Arette errepidearen mantenimenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izaba-Arette errepiderako aurreikusitako jarduketei buruz Miguel Ángel Larrayoz Lezaun, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari Jaunak eginiko galderari ihardetsiz, zera jakinarazten du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- Ba al da idatzizko hitzarmenik Nafarroako eta Frantziako administrazioen artean, Izaba-Arette errepidearen mantenimenduari buruz?

Bada hitzarmen bat, erantsita doana, neguko mantenimendurako. Hitzarmen horri jarraituz, ekipo frantsesek 12. km.tik eta frantses mugaren

artean jarduten dute. Hitzarmena urtero gaurkotzen da.

2.- Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat aurreikusi al du aipaturiko errepidearen mantenimendua hobetzeko, Erronkari Ibarreko Batzarrak behin eta berriz eskatu duen bezala?

Aurreikusitako jarduketak honako hauek dira:

a) Errayze-ko bisuts-lekua kentzea, mendibaketa lau metro zabalduz eta kontrako aldeko malda leunduz.

b) Elur-kentzeko makina Erronkaritik Belagua-ko mendatera garraiatzeko atoi bat erostea.

c) 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera Erronkariko elur-kentzeko ekipoak gehitzea, eskusiboki mendatera zuzenduriko baten bitartez. Ekipo hau 1998, 1999, 2000 eta 2001 urteetarako Agoitzko barrutiaren kontserbazio integralerako kontratua zati izango da.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 26a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Castejonen enaren habiak hondatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Castejonen enaren habiak hondatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 30a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko Pedro Uriz Lanz Foru Parlamen-

tari jaunak Castejónen enaren habiak hondatzeari buruz egindako galdera dela eta, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1. Nafarroako Gobernuari kontsultarik egin al zaio aipatu habiak hondatzeko asmoari buruz?

Castejóngo Udaleko idazkariak telefono bidezko kontsulta batzuk egin zizkien Natura Zaintzeko Zerbitzuko zenbait teknikori Castejóngo "Solidaridad" zahar-etxekeo teilatuko hegaletan enara azpizurien ale batzuk zeudelako, bertan zikintasun eta osasungarritasun arazo garrantzitsuak ematen zituztenak.

Egindako kontsulten helburua zen jakitea habi pila hartatik batzuk kentzea posible ote zen, aipa-

tu arazoak saihesteko, espezie horretako egoerari batere kalterik egin gabe.

2. Ingurugiro Departamentuak oniritzia eman al dio aipatu jarduketari?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, aurreko ataleko kontsultak eginda, arazoa baloratu zuen.

Enara azpizuria –ez enara, enara azpizuriaren aldean ezaugarri morfologiko nabarmenki desberdinak dituena– gure lurraldean nahiko zabaldua dagoen espeziea da, eraikin askotako teilatu-hegaletan habiak egiten dituena eta oso erraz ugaltzen dena.

Inguruabar hauek ekarri zuten enara azpizuria ez sartzea azaroaren 27ko 563/1995 Foru Dekretuak bildutako Nafarroako Espezie Mehatxatuen Katalogoan.

Beste aldetik, kontuan hartu zen hegaztien gorozkiek eraikinean egindako kalteak ez zirela soilik estetikoak, baizik eta holakoetan behar den garbitasun eta osasungarritasun hagitz handietan ere bestelako kalteak ere ekar zitzakeela, kontutan hartuta eraikina zahar-etxe moduan erabiltzen dela.

Azkenik, eraikineko titularrek aurreko urteetan enara azpizuriak erabilitako habietako batzuk kentzeko aukeratu zuten momentua ere baloratu zen, hain zuzen ere, habiak hutsik zeudelako eta hegaztiak ez zirelako erabiltzen ari. Horrek esan nahi du ez dela inongo hegaztirik hil, ez eta haien kumerik ere (nahiz eta Nafarroan ez dauden mehatxatuta), eta habiak egiteko beste leku batzuk bilatzen hasten direnean beste leku batzuk bilatuko dituztela, seguraski udalerrri berean, baina aurreko aldietan erabilitakoetatik metro batzuk urrunago.

Aztertutako inguruabar guztien ondorioz, kalte egiten zuten habietan egin beharreko jarduerak ez zuten inongo eraginik izanen enara azpizuriaren kopuruan eta kendutako habiak hurbileko tokietan berregin zitezkeen, baina zahar-etxearen eraikina kaltetu gabe.

Dena den, Castejóngo Udalak ez zuten inongo eskaera formalik egin, eta horregatik ez zen administrazio-ebazpenik eman habiak hondatzeko baimena ematen zuenik, Basa Fauna eta haren Habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 9. artikulua egintzen zuen bezala.

3. Gobernuak ba al du hondatutako habiak aipatu herriko beste tokiren batean berreraikitzeke asmorik?

Hegaztien habiak, normalean, ezin dira jarri edo kokatu gizonak egoki irizten dion toki batean; hegaztiak beraiek dira habiak egin nahi dituzten tokia aukeratzen dutenak, eta habiak egiteko lanetan errunaldiaren aurreko garaian hasten dira.

Kontuan hartuz, bada, animalien espezieak direla beren bizi-zikloetan habiak egin, egokitu, hobetu edo berreraikitzeke lanak hartzen dituztenak, haiei eta ez beste inori dagokie habi berriak egiteko toki berriak aukeratzea, hala behar izanez gero.

Horregatik, Gobernuak ez du haiek langutzeke inongo neurririk planteatu, izan ere beharrezkoak ere ez baitira irauteko mehatxu nabaririk ez duten espezieetan.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Parke Natural izendatu baino lehenago egin behar den Aralar Mendiko natur baliabideak antolatzeko planari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Parke Natural izendatu baino lehenago egin behar den Aralar Mendiko natur baliabideak antolatzeko planari buruz egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 30a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, parke natural izendatu baino lehenago egin behar den Aralar Mendikateko natur baliabideak antolatzeko planari buruz José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du:

1.- Zer enpresari esleitu zaio Aralar Mendikateko natur baliabideak antolatzeko plana eta zer prezioetan?

Aralar Mendikateko Natur Baliabideak Antolatzeko Planari buruzko lan-dokumentua egitea TERRA Sozietateari esleitu zitzaion, azaroaren 13ko 254/1995 Foru Aginduaren bitartez, 9.500.000 pezetako zenbatekoarekin.

2.- Noizko zegoen aurreikusita kontratatuturiko plana entregatzea? Noiz entregatu zuten?

Irailaren 18ko 40/1995 Foru Aginduaren bidez onetsiriko lan-dokumentuaren kontrataziorako espedientean, egikaritzeko epe-muga 1996ko urriaren 31 zela adierazten zen.

Data hauxe bera aipatzen da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eta TERRA enpresak sinaturiko laguntza teknikorako kontratuan.

Kontrataziorako espedientea izapidatzeko oinarri izan ziren administrazio klausulen eta baldintza tekniko berezien Orrietan ere data hori aipatzen da bukaerako memoria aurkezteko epe-muga gisa.

Aralar Mendikateko Baliabideak Antolatzeko Planari buruzko lan-dokumentua 1996ko azaroaren 20an entregatu zuten Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan.

3.- Zer jarduketa burutu du Nafarroako Gobernuak, natur baliabideak antolatzeko plana ekarri ziotenetik, Aralar parke natural deklaratzeko sustatzeko?

Egun, Nafarroako Gobernuak plana idatzi duen taldeak aurkezturiko dokumentuak aztertzen ari da; horretarako, egindako lana azaldu eta argitzeo bilerak egin ditu talde horrekin.

4.- Zer harreman edo elkarrizketa izan du Nafarroako Gobernuak toki entitateekin, aipaturiko plana egiten parte har dezaten?

Natur Baliabideak Antolatzeko Planari buruzko lan-dokumentuaren zirriborroa idazteko ekipoak Toki Ente guztien partehartzearekin egin du lan, Baita Aralarko Batasunarekin ere.

Ingurugiro Zuzendaritza Nagusitik Aralarko Batasunarekin harremanak eduki dira beren iritzia jakitearren, ingurua parke natural deklaratzeko izapideak hasteko asmoz.

5.- Nafarroako Gobernuak zer jarduketa aurreikusit du, eta zer egutegi, natur baliabideak antolatzeko plana izapidatzeko?

6.- Nafarroako Gobernuak noizko atera nahi du aipaturiko plana jendaurrera eta toki-entitateen audientziara?

7.- Noizko aurreikusit du Nafarroako Gobernuak natur baliabideak antolatzeko plana behin betikoz onartzea?

Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeak eta irailaren 9ko 302/1996 Foru Dekretuak natur baliabideak antolatzeko planak landu eta onesteko burutu behar diren jarduketak arautzen dituzte.

Aipaturiko Foru Dekretuan xedatzen denez, natur baliabideak antolatzeko planak toki-entitateen ekimenez ere egin ahal izango dira.

Nafarroako Gobernuak formula honen aldeko erabakia hartu duela kontuan edukiz, Aralar Mendikateko toki-entitateek planerako beren proiektua onesten duten neurrian finkatuko da jarduketaren egutegia.

8.- Nafarroako Gobernuak noizko pentsatu du Aralar parke natural deklaratzeari buruzko Foru Lege proiektua Biltzarrera igortzea?

Natur baliabideak antolatzeko plana behin betirako onesten ez den bitartean, Aralar Parke Natural deklaratzeari buruzko Foru Lege Proiektua Parlamentura igortzea ez dago aurreikusita.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 26a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

90052-5 “Tuterako Parkeko Obrak” aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak 90052-5 “Tuterako Parkeko Obrak” aurrekontu kontusailaren kontabilitate egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 30a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

90052-5 “Tuterako parkeko obrak” aurrekontusailaren kontabilitate-egoerari buruz Martín Landa Marco, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak:

Honako atal hauek osatzen dute galdera:

1.- Zein da aipaturiko kontusailaren kontabilitate-egoera, alegia, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko 90052-5 lerroa, “Tuterako parkeko obrak” izenekoarena?

A.- Galderaren atal ezberdinak oinarritzeko asmoz-edo hasiera batean galderaren testutik ondorioztatzen den bezala, egia da “Tuterako parkeko obrak” izeneko 02100-6021-2-2221 kontusaila (50002 proiektua, 90052-5 lerroa) zabaldu egin daitekeela, 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa den urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikulua araber.

B- Aipaturiko aurrekontu-kontusailari behinola eman zitzaion tratamendua proposaturiko helburuaren arabera zen erabat, Tuteran Foruzaingoaren koartela eraikitze bideraturik zeuden eta ekitaldian zehar aitor zitezkeen obligazioei buruz garai hartan zeuden igurikapenak aintzat hartzen baitzituen, eta, hala ere, eraikuntza horri buruz 1997rako aurreikusitako helburuak uste baino lehenago betetzearen aukera balizko baina ziurgabeari aurre egitea ahalbidetzen baitzuen. Aurreko Gobernuaren agintepean eraikinaren kokapena aldatu egin zen, eta egiteke geratu ziren Tuterako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren aldeko jarraian lurzoru-lagapenen formalizazioa, poligonoaren urbanizazio-gastuetan partehartzeari zegokion ekarpena, beharrezko ziren baimenak lortzea eta kontratazio-espeditante egokia izapidatzea.

C.- Aipaturiko aurrekontu-kontusailaren dagoen kreditu erabilgarria, zeinaren lerro-zenbakia 90052-5 kodeari baitagokio, hasiera batean onarturiko kontsignazioarekin bat dator (100.000.000 pezeta). Kreditu hori helburu zehatz baterako izan zen baimendua, eta helburu hori dela-eta har daitezkeen obligazioei aurre egiteko osoki eta berehala erabil daiteke.

2.- Jakin nahi da egungo Gobernuak eutsi egiten al dion oraindik Foruzaingoaren koartela Tuteran egiteko planari.

Nafarroako Gobernuak eutsi egiten die Foruzaingoaren Tuterako destakamenduaren koartela eraikitze aurreikusitako planari.

3.- Aurreikusitako epe guztiak bete ez direnez, eta gainera, kontusail hori aukeratu dutenez Departamentuko aurrekontu-izozketa gauzatzeko, noizko aurreikusten da obrak hastea?

A.- Aipatu aurrekontu-sailaren izozketari dagokion baieztapen hori ezin da akats bat besterik izan, hain zuzen ere inongo izozketa edo kontabilitate mugarik ez dagoelako.

B.- Tuterako Udaleko Osoko Bilkurak, joan den apirilaren 30ean, hiriko errepide zerbitzuen Zentroko Poligonoaren 12. lursaila Nafarroako Gobernuari dohainik lagatzeko erabakia hartu zuen. Lursail hori I-1-A ostalaritza sektorean dago, hornidurak-zerbitzu publikoak (Foruzaingoaren koartela) jartzeko dago, 7.318 metro karratu ditu, eta lagapen hartzailea urbanizatzeko kargetan subrogatua dago; lagapenerako erabakiak, besteak beste, ondoko baldintzak ezartzen dizkio Nafarroako Gobernuari: 1) Industri Eskola Teknikoaren aurrean hasi, dagokion semaforo konexioa duela, eta Reina Sofía Ospitalean bukatuko duen oinezkoentzako espaloi bat egitea; 2) espaloi hori Foruzaingoaren komisaldegia eraikitzeke Udaletxean aurkeztuko den burutzapen proiektuan sartzea –hain zuzen ere, jarduerarako eta lanak burutzeko kasuan kasuko lizentziak lortzeko–.

Aurretik, eraikinaren aipatu leku aldaketarekin, 1996ko maiatzaren 31n eginiko bilkuran, Tuterako Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen Herrilurretako Lursailen planoko 1. ataleko 31. poligonoko I. lursaileko herrilurreko 10.655 metro karratu desfektatu eta Nafarroako Gobernuari ematea –lur hori N121-C-ren eta aipatu lurren artean dago–, hain zuzen arestian aipatu diren lur horiei erantsi eta Tuterako Foruzaingoaren komisaldegia eraikitzeke; erabilpenaren lagapenak zenbait zortasun zeuzkan, Enagás, Gas Navarra, S.A., Avanti, S.A., Iberduero eta Telefónicaren aldekoak, eta baldintza orri bat zeukan arau, Udalak berak onetsia.

C. - Foruzaingoaren Tuterako komisaldegia eraikitzeke ezarri zen jardueren segidak, hurrengo xehetasunak ditu, besteak beste:

a) Lagatutako lur guztiak, oinezkoentzako espaloia eta lanak burutzeko prezioen gaurkotzea barne hartuko dituen proiektuaren aldaketa bat kontratatzea.

b) Nafarroako Gobernuak lurren lagapena onestea eta lagapen horiek formalizatzea (eskritura publikoa egin eta erregistratzea).

c) Nafarroako Gobernuak onestea aldaturiko proiektua eta jarduerarako eta lanak burutzeko lizentzia eskatzea.

d) Hasiera ematea urbanizazio kuotak ordaintzeko espedienteari.

e) Urteanitzeko gastu bat onestea, halakorik bada, eta lanak kontratatzeke espedienteari hasiera eta bukaera ematea.

f) Behin aipatu lizentziak eman direnean, lanei hasiera ematea.

D.- Azaldutakoaren arabera, lanen hasiera, ezinbestez, 1998ko lehen hiruhilekorako aurreikusetan da, nahiz eta saioak eginen diren hori, ahal dela, aurreratzeko prozedurak koordinatu eta sustatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 28an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria, Rafael Gurrea Induráin

Atarrabiako nekazaritza laborategiari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Atarrabiako nekazaritza laborategiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas jaunak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren babespean, "Atarrabiako Nekazaritza Laborategiari buruz" idatziz erantzun diezaioeten egindako galderaren inguruan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Landare Biologiaren Bulegoa Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzuari atxikia dago, Nekazaritzako Ekoizpen eta Merkatuen Atalaren menpean.

Analisi Instrumentaleko Bulegoa Nekazaritzako Elikagaien eta Elikaduraren Zerbitzuari atxikia dago, Nekazaritzako Elikagaien Kalitatearen Atalaren menpean.

Abeltzaintzako Laborategiaren Bulegoa Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzuari atxikia dago, Nekazaritzako Ekoizpen eta merkatuen Atalaren menpean.

2. Landare Biologiaren Bulegoa

Izena	Maila	Lanpostua
Borda Izko, M ^a Angeles	C	Laborat. laguntzaile tek.
Borruel Olano, M ^a Luisa	B	Bulegoburua
Goñi Luciaga, José M ^a	E	Langilea
Lázcoz Urtasun, Juana M ^a	C	Laborat. laguntzaile tek.
Mezquiriz Artajo, Miguel	E	Langilea
Muñoz Bosques, Pastora	C	Laborat. laguntzaile tek.
Otsoa Iriarte, Aitziber	C	“ “ “
Plaza Campistegui, Blanca	B	Nekazaritzako Ingen. Tek.
Rabanal Jarauta, Andoni	C	Laborat. laguntzaile tek.
Zabalza Calvo, Raúl	E	Langilea

Analisi Instrumentaleko Bulegoa.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi kontseilariak 1994ko otsailaren 7an emandako Foru Aginduaren bidez, funtzionario batzuk Nekazaritza Laborategirari atxiki zitzaizkion. Gaurko egoera honako hau da:

Nekazaritzako Elikagaien Kalitatearen Atala.

Izena	Maila	Lanpostua
Araque Gutiérrez, José M ^a	E	Langilea
Etxarri Carasusan, M ^a Jesús	C	Ofizial Administratiboa
Echeverria Sesma, Augusto	A	Atalburua
García Cordova, Consuelo	C	Ofizial Administratiboa
Iribarren Luzuriaga, Fermín	A	Kimikaria
López Mtez. de Toda, Jesús	A	Laborat. burua. Kimikaria
Pena Arguedas, Victor	D	Mekanikari Makinista
Rabbaní Mahmond, Mohamed	A	Kimikaria

Analisi Instrumentaleko Bulegoa

Izena	Maila	Lanpostua
Aznarez Anaut, Jesús Miguel	A	Kimikaria
Aznarez Landiribar, M ^a Carmen	C	Laborat. laguntzaile tek.
Echavarren Asiain, M ^a Dolores	C	Laborat. laguntzaile tek.
Erdozain Vicente, Pedro M ^a	E	Langilea
Fraile Jiménez Maquirriain, P.	A	Bulegoburua

Linzoain Belzarena, Roncesvalles	C	Laborat. laguntzaile tek.
Taramelli Carro, Beatriz	C	Laborat. laguntzaile tek.

Abeltzaintzako Laborategiaren Bulegoa

Izena	Maila	Lanpostua
Alonso Recio, Leonor	C	Laborat. laguntzaile tek.
Bartolomé Arevalo, Consuelo	C	“ “ “
Biurrun Villanueva, Victoria	C	“ “ “
De Julián Oroz, Juana M ^a	C	“ “ “
Inza Elia, M ^a Isabel	C	“ “ “
Larrea Salinas, blanca	C	“ “ “
Pérez Gomez, Sagrario	A	Bulegoburua

3. Aurrekontua.

Kontzeptua	1996 gastua	1996ko Aurrekontua
Funtzionarioen lansari finkoa, guztira	67.152.000	62.472.000
Aparteko orduak	159.664	339.000
Makineria eta tresneriaren konponketa eta kontserbazio lanak	2.365.111	Idazk. Tek.
Tresneria eta lanabes xeheak	6.228.738	6.000.000
Azoka eta kanpainetako gastuak eta kontseilu erregulatuzaileen hauteskunde gastuak		– 50.000.000
Garbiketa zerbitzuak	8.324.825	Idazk. Tek.
Hirugarrenek egindako bestelako lanak	30.313	2.500.000
Energia elektrikoa, ura eta gasa	9.915.228	Idazk. Tek.
Erregaiak, lubrikatzaileak eta berokuntza	784.889	1.200.000
Berritzeko, kontserbatzeko eta ordeztzeko materialak	938.926	1.750.000
Garbiketa materiala	391.711	Idazk. Tek.
Produktu kimikoak	4.968.360	5.000.000
Bestelako hornidura osagarriak	549.394	Idazk. Tek.
Dietak eta bidai gastuak	1.493.811	Idazk. Tek.
Elikagaien kalitatearen kudeaketa eta sustapena, Nasersak egina		– 34.000.000
Sustapen kanpaina orokorrak		– 70.000.000
Kontseilu erregulatuzaileei egindako transferentziak		– 56.000.000
Consebrorentzako dirulaguntza		– 6.000.000
Tresneria eta lanabes xeheak	10.954.788	30.000.000
“Nafarroako aretxea” kalitatezko haragia.		
5b Helburuko Plan Eragilea (**)		– 24.000.000
Bekak	2.600.000	1.680.000
Eraikinak (egokitze lanak)	395.000	500.000
Material teknikoa	5.963.184	6.000.000
Elikagaien kalitatearen kudeaketa eta sustapena, Nasersak egina		– 10.000.000
Kontseilu erregulatuzaileei egindako transferentziak		– 4.000.000.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

“Jabetza birrantolatzeko obrak, lurzati kontzentrazioa” izeneko 97030-2 eta 97009-4 lerroen aurrekontu-burutzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Jabetza birrantolatzeko obrak, lurzati kontzentrazioa” izeneko 97030-2 eta 97009-4 lerroen aurrekontu-burutzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Andrés Basterra Layana, “Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babespean, “Jabetza Birrantolatzeko lanak, lurzati kontzentrazioa” izeneko 97030-2 eta 97009-4 lerroen aurrekontu-burutzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak ondokoa azaltzen du:

1.

A) 1997ko maiatzaren 9an baimendutako gastuaren zenbatekoa 1.062.365.481 pezetakoa da, 5B Helburua, lurzati-kontzentrazioaren Plan Eragilea, Jabetza birrantolatzeko lanak, 97030-2 lerroa.

Ondokoak dira baimendutako gastua osatzen duten espedienteak:

Zangozako lanen proiektua:	152.330.650 pta.
Lintzoango lanen proiektua:	38.002.475 pta.
Esproncedako lanen proiektua:	33.256.026 pta.
Ziraukiko lanen proiektua:	185.591.694 pta.
Barbaringo lanen proiektua:	39.775.436 pta.
Mañeruko lanen proiektua:	58.796.512 pta.
Berueteko lanen proiektua:	106.198.720 pta.

Aizpurgiko lanen proiektua:	64.255.766 pta.
Oibarko lanen proiektua:	200.262.242 pta.
Artaxona IVko lanen proiektua:	12.154.832 pta.
Artazuko lanen proiektua:	228.346 pta.
Eltzaburuko lanen proiektua:	8.189.724 pta.
Vianako lanen proiektua:	20.000.000 pta.
Deikazteluko lanen proiektua:	50.000.000 pta.
Arronizko lanen proiektua:	75.000.000 pta.
Artaxona leko lanen proiektua:	18.323.058 pta.

B) 1997ko maiatzaren 9an baimendutako gastuaren zenbatekoa 321.030.041 pezetakoa da, Jabetza birrantolatzeko lanak eta lurzati kontzentrazioa, 97009-4 lerroa.

Ondokoak dira baimendutako gastua osatzen duten espedienteak:

Azagrako lanen proiektua:	235.460.801 pta.
Obanosko lanen proiektua:	74.814.453 pta.
Soraurengo lanen proiektua:	7.884.878 pta.
Imarkoango lanen proiektua:	2.869.909 pta.

2. Baimentzeko dagoen gastuaz eginen liratekeen espedienteen zerrenda:

97030-2 lerroa

Arrarasko lanen proiektua:	20.000.000 pta.
Azketa-Iguz.ko lanen proiektua:	25.000.000 pta.
Carcarko lanen proiektua:	25.000.000 pta.
Falcesko lanen proiektua:	10.000.000 pta.
Janarizko lanen proiektua:	20.000.000 pta.
Lizoaingo lanen proiektua:	18.000.000 pta.
Oskarizko lanen proiektua:	19.000.000 pta.
Urritzelkiko lanen proiektua:	8.000.000 pta.
Usetxiko lanen proiektua:	24.000.000 pta.
Zalbako lanen proiektua:	16.000.000 pta.

97009-4 lerroa:

Alliko lanen proiektua:	10.000.000 pta.
Azpirozko lanen proiektua:	12.000.000 pta.

Lezaetako lanen proiektua: 6.000.000 pta.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27an

3. Une honetan ez dago gastua baimentzeko egin zain dagoen espedienterik.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

Cortes ondoko Gallurren hondakin likido pozoitsu eta arriskugarrientzako errauskailua jartzearen osasun-ondorioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Cortes ondoko Gallurren hondakin likido, pozoitsu eta arriskugarrientzako errauskailua jartzearen osasun-ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak, "Ezker Abertzalea" Parlamentari Taldeari atxikiriko Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Gallurren hondakin likido pozoitsu eta arriskugarrientzako errauskailua jartzearen osasun-ondorioei buruz egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau igortzen dizu:

Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak ba al daki Nafarroako herri batetik gertu dagoen eskualde batean goian aipaturiko moduko errauskailua jartzeko asmoa dagoela?

Hala bada, Departamentu horrek azterketa edo kotsiderazioarik egin al du aipatua bezalako instalazioa ezartzeak Gallurretik hurbilen dauden Nafarroako herritarren osasunean, epe labur, ertain eta luzean, izan ditzakeen balizko eraginei buruz?

Osasun Departamentuak ez du inolako berririk industriaren hondakin uretarako errauskailu bat Gallurren (Zaragoza) jartzeko asmoaren inguruan, beraz, ez du ikerlanik egin horri buruz, izan ere, Aragoiko Autonomia Erkidegoa baita bere lurraldean egiten diren jarduera sailkatuen espedienteak izapidatzen dituen.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Alzheimer-ak jotako pertsoneri arreta egiteko aurreikusi diren neurriei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Alzheimer-ak jotako pertsoneri arreta egiteko aurreikusi diren neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera

hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Gobernuak Alzheimer-ak jotako pertsoneri arreta egiteko aurreikusi dituen neurriei buruz egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau igortzen dizu:

Zer neurri aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Alzheimer-ak jotakoei arreta hobeagoa eskaintzeko, haien osasun eta gizarte beharrienei dagokienean?

Osasun Departamentuak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez, osasun laguntza ematen die Alzheimer-ak jotako pertsoneri. Bestalde, dirulaguntzen bidez, "Asociación de Familiares de Enfermos de Alzheimer de Navarra" elkarteak burutzen dituen jarduerak sustatzen ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26an

Osasun Kontseilaria, Santiago Cervera Soto

Osasun-kostuei aurre egiteko zerga berria ezartzeari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak osasun-kostuei aurre egiteko zerga berria ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun Kontseilariak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak osasun arlorako ereduari eta helburu-zergei buruz egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau igortzen dizu:

1. Nafarroako Gobernuak bat al dator Alderdi Popularraren iritziarekin, alegia, osasun-kostuei aurre egiteko zerga berria ezarri behar delakoarekin? edo, alderantziz, Kataluniako nazionalisten iritziarekin egiten du bat, alegia, zerga bereziak atxikitzea osasun-defizita berdintzeari?

Nafarroako Gobernuak egoki irizten dio Nafarroako osasun arloa finantzatzeko egungo sistemari, alegia, Estatuaren ekarpenean Insaluden

aurrekontu orokorraren portzentaia bat kentzea, gizarte kontizazioen jasanarazpena eta Nafarroako aurrekontuetako berezko ekarpena erabiltzea.

Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatearen sistema berekia eta eskusiboa defendatuko du, estatu mailako osasun finantzaketari buruzko eztabaida orokorrean.

Osasun Departamentuaren irizpidea da ez "bat egitea", ez "bat ez egitea" komunikabideek labor zabaldutako iritziekin, hain zuzen ere, galderaren helburu diren horiekin. Nafarroako Gobernuak bere iritzia emanen du Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldean arteko Kontseiluan edo/eta Nafarroaren eta Estatuaren arteko Lankidetzaren Batzarrean, agiri bidez aurkeztutako proposamen zehatzak ikusita.

2. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aipatu osasun-kostuari aurre egiteko zerga berezirik ezartzea? Baiezkoan, 1998rako aurreikusi den zenbatespena jakin nahi da.

Nafarroako Gobernuak ez du zergak ezartzeko ahalmenik.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26an

Osasun Kontseilaria, Santiago Cervera Soto

Eskualde batzuetan agertutako aztarna arkeologikoei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak eskualde batzuetan agertutako aztarna arkeologikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Nafarroako zenbait lan publikotan aurkitutako aztarna arkeologikoen balizko hondatzeari buruzko zenbait konturen inguruan egindako galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Bai, 1996/10/24an, 1997/02/21ean eta 1997/05/5ean egindako eskaerei jarraituz, 1989/03/21 eta 1991/12/21 erabakiak.

2. Burututako prospekzio arkeologikoen ondorekin egin ziren txostenek gainera, kasuan kasuko txostenetan azaldutako interes-guneen jarraipen arkeologikoa egin da eta oraindik ere egiten ari da.

3. Bai. Nafarroako Museoko teknikari-arkeologo bat Etxarri-Aranatzen egon zen 1991eko abenduaren 23an, Sakanako Herrien asanbladako ordezkari batekin programatutako bilera batean, baina ordezkari hura ez zen azaldu. Teknikari hori bertaratu egin zen, ondare arkeologikoaren datutegian Sakanako Herrien asanbladaren idatzian aipatzen ziren asentamenduen berri ez bazegoen ere.

5. Egunkariek 1994ko urrian Zozaiako zubia- ren deuseztearen berri eman ondoren, Vianako Printzea Erakundeak eskatuta, Asfaltos Biurrunek desmuntatu eta zenbatutako elementu horren berri izan genuen.

6. Bai.

7. Lanen jarraipena Iruñeko Udalak kontratatutako enpresak egiten du, Vianako Printzea Erakundearen teknikari arkeologoen gainbegiraketa zuzenaren menpean. Agertu diren egitura guztiak aztertu dira, eta Udaleko ordezkariak eta Vianako Printzea Erakundeak haietarako jarduerarik egokiena adostu dute, ondare historiko eta arkeologikoaren ikuspuntutik.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe- tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 29an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros

Barañaingo lehen mailako zentroetan Haur Hezkuntzan aurreikusitako tokiei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Barañaingo lehen mailako zentroetan Haur Hezkuntzan aurreikusitako tokiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Barañaingo lehen mailako ikastetxeetan Haur Hezkuntzan aurreikusitako tokiei buruz egindako galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Arazo horri irtenbidea eman zaio Eultzak ikastetxean unitate berria sortuz.
2. Ez da batere.

3. Eskaerak gertatu ahala, baliabideak jarriko dira eskaera horiei erantzuteko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 23an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros

Bidausiko Mankomunitatek etorrira, Gongoran izaniko hiri hondakin solidoen isurketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Bidausiko Mankomunitatek etorrira, Gongoran izaniko hiri hondakin solidoen isurketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 21eko 28. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Iruñerriko Mankomunitateak uko eman dio Oroz-Betelu, Auritz, Orreaga eta Erro eta Aezkoa ibarren ente mankomunatuak (BIDAUSI) hiri hondakin solidoak Gongorako tratamendu-zentroan botatzeko egin duen eskaerari. "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak horren inguruan egindako galdera dela eta, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1. Iruñerriko Mankomunitateko Buruak adierazi duena egia al da, Bidausi Mankomunitateko hondakinaren banaketaren kalitatea eskasa dela eta behar ez bezala kudeatzen direla erakutsiko bailuke? Zer akats dira?

Bidausiko herritarrek zaborren materialekin egiten duten bereizketa ez da egokia birziklapen

plantako tratamendurako, eta askoz ere murriztagoa da Iruñerrian egiten dena baino.

Akatsa edukinontzi urdinetan erraz hartitzen diren materia organikoaren batezbesteko altuan dago. Horrek oztopoak sortzen ditu bereizketa plantan eta birziklatutako materialen kalitatea jaitzen du.

2. Nafarroako Gobernuak ba al du aipatu akatsen eta Bidausi Mankomunitateak Iruñerriko Mankomunitateari egin zion eskaeraren berri?

Nafarroako Gobernuak badu Bidausi Mankomunitateak Iruñerriko Mankomunitateari egin zion eskaeraren eta haren erantzunaren berri. Erantzunean baimena ematen zitzaion Bidausikoari hondakinak Gongorako Hiri Hondakin Solidoen Tratamendurako Zentroan entregatzeko behin-behinekoz, Urrotz Hirian hondakineterako zaborregia eraiki bitartean. Zaborregi horren titularra 10. Eskualdeko Mankomunitatea da.

Berriki Iruñerriko Mankomunitateak Bidausikoari eskatu dio ez ekartzeko hondakin gehiago Gongorako hiri hondakin solidoen tratamendurako zentrorra, izan ere Urrotz Hiriko zaborregia jada eraikia eta funtzionamenduan dagoelako eta, beste aldetik, Bidausiko Mankomunitateko hiri hondakin solidoen bereizketa ez delako nahi bezain ona. Hala ere, Iruñerriko Mankomunitateak Bidausikoari laguntza eskaini zion zaborren bereizketa hobea egitearren informazio kanpainiak burutzeko, izan ere gero Gongoran parte inertearen tratamendua egiteko soilik, baldin eta Bidausin aukerako bilketa egiten jarraitu nahi bada.

3. Zer neurri zehatz hartu nahi ditu Nafarroako Gobernuak Bidausiko Mankomunitateak hiri hondakin solidoak behar bezala kudea ditzan? Zer kostu izanen dute? Zer epetan abiarazteko asmoa du? Zer unitate administratibok izango du horiek sustatu, kudeatu eta zaintzeko ardura?

Nafarroako Gobernuak uste du behar ziren neurriak hartu zituela Bidausiko Eskualdean hiri hondakin solidoen kudeaketa egokia egin zedin, eta horretarako Hiri Hondakin Solidoen Plana egin zuen 1988an, Eskualde horretarako zabortegei kontrolatu bat jartzeko tokia bilatu zuen, eta hartarako inbertsioen hein handi bat jarri eta hura kudeatzeko eskatu zen laguntza guztia eman zuen.

Ontzi eta ontzien hondakinei buruz berriki onetsi den Legeak xedatutakoari jarraituz, eta hartan ezarritako epeetan –hots, 2001eko ekainaren 30a baino lehen– proposatzen diren baloreztapen eta birziklapen neurri guztiak bete beharko dira. Neurri horiek ontzien hondakinei buruzko programa batean bilduko dira Plan Zuzentzailearen berrikuspenaren barnean.

4. Aipatu toki eta ibarretan zarama behar ez bezala kudeatzearen ondorioz, izan al da edo ba al da osasun publikoarentzako edo ingurugiroarentzako arriskurik? Zeintzuk? Zer neurri zuzentzaile erabiltzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak aipatu arriskuei aurrea hartzeko?

Hondakinekin Bidausik egin duen kudeaketaren ondorioz ez da osasun publikoarentzako edo ingurugiroarentzako arriskuen igoerarik gertatu. Kalterik izatekotan, ekonomikoa izan da berreskuratu beharreko gai batzuk alde batera utzi direlako. Bestalde, Gongorako hiri hondakin solidoen tratamendurako zentroan nolabaiteko deserosotasuna ere sortu du.

5. Norena da aipatu herrietako zaborren kudeaketa behar bezala ez egitearen eta Iruñerriko Mankomunitateko Buruak azaleratu dituen egoera kezkarrien ardura?

Hiri-hondakin eta -zabor solidoei buruzko azaroaren 19ko 42/1975 Legeak xedatutakoari jarraituz, udalerrri batean sortzen diren hondakinetak kudeaketaren erantzukizuna kasuan kasuko Udalarena da. Hiri-hondakin eta -zabor solidoei buruzko azaroaren 19ko 42/1975 Legea aldatzen duen 1986ko ekainaren 13ko Errege Dekretu Legeak (10.5 art.) ezarri zuen bezala, probintzietako diputazioek behar diren neurriak hartuko dituzte Legeak udalei esleitzen dizkien zerbitzuak udalerrri guztietan osorik eta modu egokian eman daitezen segurtatzeko, baldin eta udal horiek zerbitzua emateko modurik ez badute arrazoi ekonomiko

edo antolamenduzkoengatik, edo mankomunitaterik sortu ez badute xede horretarako, edo diputazio, kabildo edo kontzejuekin partzuegorik egin ez badute.

Argi dago Bidausiko Mankomunitatearen lurralde esparruan ez direla baldintza horiek betetzen eta, beraz, Udalak direla beren hondakinen kudeaketaren erantzuleak.

6. Nafarroako Gobernuak egokitzen jotzen al du Bidausiko Mankomunitateak Gongorako tratamendu zentroan hondakinak isurtzeko egin duen eskaria? Zergatik? Aipatu eskaria bat al dator Iruñerriko tratamendu zentroak ezarritako kudeaketa-baldintzekin eta indarreko legediarekin?

Mankomunitateek beregainak dira beren hondakinak egokien irizitako moduan kudeatzeko indarra duen legediaren barnean, eta legedi horren barnean dago Bidausiko zaborrak Gongorako hiri hondakin solidoetarako tratamendu zentroan tratatzea. Beraz, bidezkoa da zaborrak aipatu zentroan tratatzeko eskaera, eta zentro horretarako ezarritako kudeaketa baldintzei eta indarrezko legeari egokitzen zaie.

7. Aipatu herri eta ibarretako hiri hondakin solidoen kudeaketan antzemandako akatsak konponzen diren bitartean, zer aldi baterako edo behin-behineko konponbide ezarri nahi ditu Nafarroako Gobernuak?

Ondokoak dira Bidausiko Mankomunitateak bere hondakinak kudeatzeko aukeran dituen irtenbideak:

A alternatiba: hondakin guztiak Urrotz Hiriko zabortegira eraman bertan tratatzeko.

B alternatiba: hondakin organikoak (edukinontzi berdeak) Urrotz Hiriko zabortegira eraman eta zaborren aukeraketa hobetzea informazio kanpainak eginez, eta hondakin inerteak (edukinontzi urdinak) Gongorako hiri hondakin solidoen tratamendurako zentrori eramatea. Kanpainia hori egiteko Iruñerriko Mankomunitateak laguntza emanen lioke.

Nafarroako Gobernuak ez du behin-behineko irtenbiderik jartzeko asmorik, izan ere bi alternatiba horietako edozein onargarri delako eta berehala ezarri daitekeelako.

8. Zer aurreikuspen ditu hiri hondakin solidoak kudeatzeko plan zuzentzaile indarrekoak aipatu herri eta ibarretako hondakin solidoak kudeatzeko?

1988ko hiri hondakin solidoen Plan Zuzentzaileak Bidausi Eskualdeko hiri hondakin solidoak kudeatzeko egiten zituen aurreikuspenetan zego-

en zaborren bilketa mekanizatua egitea edukinon-tzi eta kamioi konpaktatzaileak erabiliz, eta zabor horien tratamendua egitea zabortegei kontrolatu batean. Mankomunitate horrek ez zuenez egoki ikusi zabortegea eraikitzea, aurreikusitako alternatiba zen zaborrak Urrotz Hiriko zabortegean tratazea. Horixe da orain indarrean dagoen planteamendua.

9. Zer aurreikuspen ari dira aztertzen aipatu eskualdeko hiri hondakin solidoak kudeatzeko plan zuzentzaileari iragarri zaion berrikuspenean? Litekeena da aipatu eskualdeetako hiri hondakin solidoen kudeaketa integrala (zaborrak bereiztea, gai organikoarekin konposta egitea, gain inorganikoak birziklatzea, gainerakoentzako hondakindegia...)? Zein da horiei ekiteko gutxi gorabeherako kostua eta epea?

Ontzi eta ontzien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Lege berriaren, Hondakinei buruzko Lege Aurreproiektuaren zirriborroaren eta zabortegei buruzko Zuzentarauaren proiektuaren babesean, hiri hondakin solidoen Plan Zuzentzailea berrikustea aztertzen ari da.

Bertan, hondakinak aurreikusi, gutxitu, berrera-bili, birziklatu, enegia bihurtu eta erabiltzeko dauden aukerak aztertzen dira, beti ere ingurugiro baldintza onenetan, aukera ekonomiko onargarrietan eta eskualde mailan garapen orekatuan, baita populazio dentsitate txikia eta zailtasun geo-

grafiko handiak dituzten eskualde periferikoetarako ere.

Hondakinen kudeaketarako sistema integratu honen kostuen kalkuluari dagokionez, erabakiorra izanen da eskualde desberdinetan birziklapenak duen kostua. Kostu hori birziklatzen diren hondakinen batezbestekoaren eta oraindik baimendu gabe dauden ontzi eta ontzi erabilien hondakinen kudeaketarako sistema integratuetatik jasoko diren dirusarreraren araberakoa izanen da.

Ontzi eta ontzien hondakinei buruzko Legeak ezartzen du kudeaketa sistema integratuek finantzatu behar dutela hiri-hondakin eta -zabor solidoak zabortegei kontrolatu batean bildu, garraiatu eta tratatzeko 42/1975 Legeak ezarri zuen sistema arruntaren eta Lege horrexek arautzen duen kudeaketa sistemaren arteko aldea.

Ezartzeko epeei dagokionez, hartu behar diren erreferentziak dira legeak berak seinatu dituenak, hau da, 2001. urteko ekainaren 30etik 2000 urteko apirilaren 30era bitartekoa, bitarteko egoera gisa.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 28an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Ureztalur berriak sortzeko aurrekontu-programazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak ureztalur berriak sortzeko aurrekontu-programazioari buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguíá

ERANTZUNA

Andrés Basterra Layana, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoaren babesean, ureztalur berriak sortzeko aurrekontu-programazioari buruz idatziz erantzuteko egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak 1, 2 eta 3. eranskinetan –eskatutako ordenean– dagoen erantzuna ematen du:

Iruñean 1997ko maiatzaren 27an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

1. eranskina

97-10-16an baimendutako egungo gastua osatzen duten espedienteen zerrenda,
dirulaguntzetako banakako zenbatekoak aldean dutela

1997rako aurrekontua: 1.427.000.000

Proiektuaren izena	Herria	1997rako baimendutako dirulaguntza
Monte de Azagra alderdia ureztalur bihurtzea	Azagra	348.126.419
Bayunga erretena gainjanztea. I. tartea	Santacara	259.679.450
Camponuevoko lurzati batean (Cascante) instalazio bat egitea.	Cascante	214.643
Bargotako lurzati batean instalazio bat egitea	Bargota	57.644
Melidako Soto Bajoko herrilurretako ureztalurrak birmoldatzeko proiektua	Mélida	49.965.465
Vianako eta Tamarigal alderdiko ureztalurrak modernitzatzeko proiektua.	Viana	120.000.000
Leringo herrilurretako lurzatietan ureztaketa ekipamendua	Lerín	3.598.333
Negutegien eremuko azpiegituretarako proiektua, Urantziako Cantarranas alderdian	Urantzia	72.940.772
Mendaviako Rubio de Abajo alderdiko lurzati antolamenduko lurrak sistematizatzeko proiektua	Mendavia	3.262.954
Beireko lurzati antolamenduarekin batera erretenak gainjanzteko proiektuaren Proiektu Aldatua	Beire	19.501.134
Guztira		877.346.814

2. eranskina

1997ko aurrekontuaren bidez baimentzeko dagoen gainerako gastuez burutuko diren lanen zerrenda,
inbertsioko nahiz dirulaguntzako banakako zenbatekoak aldean dituztela.

Baimentzeko dagoen gainerakoa: 549.653.186 pezeta

Proiektuaren izena	Herria	Inbertsioa	Baimentzeko dagoen dirulag.
Instalazio bat Bargotako lurzati batean (15 nekazari)	Bargota	38.000.000	17.207.129
Balsilla Marín alderdia ureztalur bihurtzea	Caparroso	5.600.000	5.000.000
Azagrako lurzati batean instalazio bat egitea	Azagra	395.000.000	138.000.000
Mendavian eraldaketa bat egitea (kitapena)	Mendavia	20.000.000	17.000.000
Zabala eta Olmos (Santacara) eta Arenal (Mélida) alderdiak hobetzea	Santacara eta Mélida	55.600.000	50.000.000
Caparrosoko lurzati antolamenduko ureztalurrak hobetzea		115.000.000	98.000.000
Zarrakazteluko erreten nagusia hobetzea. (Biona eta Arcaletas)	Zarrakaztelu	30.000.000	30.000.000
Ferial alderdiko urak berrerabiltzea	Alesbes eta Cadreita	8.000.000	8.000.000
Plana alderdiko ureztaketa automatizatzea	Funes	33.000.000	25.000.000
Coballeta alderdiko ureztaketa hobetzea	Falces	6.000.000	4.500.000
Montes del Cierzo eta Valdetellas alderdietako lurzati batzuetan instalazioak egitea	Tutera	90.000.000	60.000.000
Arga ibaiko alubialeko putzuak	Funes	24.000.000	24.000.000
Beireko zenbait ekintza bukatzea (berdintze lanak eta azpiegitura)	Biere	51.000.000	43.000.000
Eraldaketa lanak Bardeetan	Bardeak	35.300.000	29.900.000
		906.500.000	549.607.129

3. eranskina

Eskatutako lanen zerrenda, beren zenbatekoekin, 1998ko aurrekontuarekin
(1998-1999) burutu beharko direnak

Proiektuaren izena	Herria	Inbertsioa	Baimentzeko dagoen dirulag.
Balsilla Marín alderdian zenbait lur ureztalur bihurtzea	Caparroso	150.000.000	130.000.000
Balislla Maringo lurzati batean instalazio bat egitea	Caparroso	78.000.000	58.000.000
Vianako eta Tamarigal alderdiko ureztaketa modernizatzeko proiektua	Viana	242.000.000	206.860.150
Zabala eta Olmos (Santacara) eta Arenal alderdiak hobetzea (Mélida)	Santacara eta Mélida	114.300.000	103.000.000
Zabala eta Olmos (Santacara) eta Arenal (Mélida) alderdietako lurzati batean instalazio bat egitea	Santacara eta Mélida	111.000.000	83.000.000
Eraldaketa bat Sesma III.ean	Sesma	50.000.000	45.000.000
Instalazio bat Sesma III.eko lurzati batean	Sesma	15.000.000	11.000.000
Bayungako erretena gainjanztea. II. tartea	Murillo el Cuende, Caparroso	227.000.000	227.000.000
Eraldaketa bat Caparrosen	Caparroso	339.000.000	288.000.000
Eraldaketa bat Azkoién-Marcillan	Azkoién eta Marcilla	341.000.000	290.000.000
Berdintze lan bat Azkoién-Marcillan	Azkoién eta Marcilla	100.000.000	85.000.000
Eraldaketa bat Traibuenasen	Murillo el Cuende	118.000.000	100.000.000
Berdintze lan bat Traibuenasen	Murillo el Cuende	22.500.000	19.000.000
Ureztaketa hobetzea Corraliza la Esperanza-n	Zarrakastelu	155.000.000	140.000.000
Berdintze lan bat Corraliza la Esperanza-n	Zarrakastelu	108.000.000	92.000.000
Ponpa, idoia eta banaketa sarea egitea Irunberrin eta Urraul Beitin	Irunberri eta Urraul Beiti	170.000.000	153.000.000
Lurzati batean instalazio bat egitea Irunberrin eta Urraul Beitin	Irunberri eta Urraul Beiti	68.000.000	58.000.000
Saso del Salazar alderdian ureztaketa hobetzea(Irunberri)	Irunberri	120.000.000	105.000.000
Ureztaketa hobetzea Garesen	Gares	150.000.000	135.000.000
Lurra berdintzea Garesen	Gares	44.000.000	37.000.000
Ebroko komunaleko ureztalurra hobetzea Valtierran	Valtierra	240.000.000	216.000.000
Ebroko komunaleko herztatian inztalazioa egitea Valtierran	Valtierra	156.000.000	117.000.000
		3.118.800.000	2.698.860.150

Nafarroako Gobernuak Klinika Unibertsitarioarekin duen itunari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak Klinika Unibertsitarioarekin duen itunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 5eko 31. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 4a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak Klinika Unibertsitarioarekin duen itunari buruzko datuak zabaltzeko egindako galdera dela-eta, izenpetzen duen Osasun Kontseilariak honako erantzun hau gortzen ditu:

1. Zer prezio kobratu zaio Nafarroako Gobernuari klinika horretan eguneko eta oheko?

Osasunaren arloan ez da ezagutzen eguneko eta oheko parametroan oinarritzen den inongo itunik. "Egonaldia"rena da orokorrean eta beti ezartzen den modulua. Ondokoa da egonaldiari buruz 1978ko urriaren 14ko Estatuko Aldizkari Ofizialak (irailaren 2ko R.1.931 Ministro Aginduaren garapena) ematen duen azalpen estatistikoa: "ingresatutako eri bati zerbitzuak ematen zaizkion edozein aldi, elkarren segidako bi eguneko zentsoko orduen artean".

Ildo horretatik, egonaldiaren ordainketa indiskriminatuak, haren iraupen sekuentziala alde batera utzita, iraupen hori luzatzeko arrisku kaltegarria sortzen du ezinbestez, eta horrek ustekabeko ondorio ekonomikoak sortzen ditu. Hori dela eta, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin duen itunetan, egonaldiaren kontzeptua eta patologien bilakaera arruntaren segida lotu zituen, beherako sistema bat ezarri beharrezko ez diren luzapenak saihesteko. Sistema horrek, beraz, hiru zati ezarri zituen prezioetan: ospitaleratu ondoko 4 egunak, hurrengo lau egunak eta ondoko egun bakoitza.

Ondokoa da 1997. urterako indarrean dagoen tarifa:

- lehenbiziko 4 egunak: 41.728 pezeta egonaldiko.
- ondoko lau egunak: 30.347 pezeta egonaldiko.
- Ondoko egunak: 17.703 pezeta egonaldiko.

Egonaldiko batezbesteko prezio erreala kasuan kasuko egonaldiko kopuruaren arabera izanen da. Horrela, esate baterako, hamar eguneko ospitaleratze orokor batengatik ordainduko den prezioa egonaldiko 32.370 pezeta izanen da.

Hemodialisi, T.A.K., E.M.N. eta litotriziari buruzko datu globalei buruz:

- Saio bakoitzaren prezioa.
- Aipatu ospitalean tratatzeko irizpideak (urte bakoitzarendako zehatz bitez, ezberdinak baldin badira).

Lehenbiziko galderari dagokionez, ondokoak dira 1997. urterako prezioak:

- Hemidialisiko saio bat: 19.210 pezeta.
- T.A.K.:
 - Soila: 21.238 pezeta.
 - Bikoitza: 32.832 pezeta.
 - Hirukoitza: 43.092 pezeta.
- E.M.N.:
 - Soila: 41.040 pezeta.
 - Bikoitza: 63.612 pezeta.
 - Hirukoitza: 83.106 pezeta.
- Litotrizia: 184.680 pezeta.

Galderaren bigarren atalari dagokionez, ondokoak dira irizpideak:

a) Hemodialisia: zentro horretan tratatutako eriak, San Juan de Dios Ospitalean tratatutakoak bezala, sistema publikoan baliabiderik ez dagoelako tratatzen dira hor.

b) T.A.K. eta E.M.N. diagnostikoko probak dira, Nafarroako Klinika Unibertsitariora bidalitako eriei egiten zaizkienak diagnostikoa egin eta tratamendua jarri ahal izateko. Oso gutxitan gertatzen da proba horiek egitea gure aparatuetan akatsik izan edo larritasun kliniko bat egon eta gure zentroetatik bidaltzea.

c) Litotrizia: 1996an bi galdera parlamentariori emandako beste horrenbeste erantzunetan azaldu zen bezala, L.E.O.C. proba Nafarroako Klinika

Unibertsitarioan tratamenduan dauden eriei beste inori ez zaio egiten.

3. Forfaitak eta helburuak zertan dautzan azalzteza, eta baita urtero egin den unitateko gastua zehaztu ere.

Ondokoak dira 1996. urtean ordaindutako "forfait"ak:

Izena	Zenbat	Fakturazioa
Kraneotomia	1	808.500
Betazalaren zirugia	19	1.122.620
Dakrizistorinostomia	5	726.733
Betzuringoaren trasplantea	6	2.242.990
Trabekulotomia	7	871.275
Albo bateko gandua	248	34.506.832
Bitrektomia	27	8.897.726
Albo bateko estrabismo horizont.	5	535.456
Balbularrak	10	12.257.748
Koronarioak	21	30.467.625
Angioplastia transluminal koron.	27	14.176.673
Kateterismo-Koronarigrafia	73	11.163.033
Taupagailua jartzea	37	7.582.866
Baskularrak eta aneurismak	6	4.388.510
Belauneko artroskopia	6	993.802
Guztira	498	130.742.389

Kopuru hori, 130.742.389 pezeta, urte horretako guztirako fakturazioaren % 10,02 izan zen.

4. Botikei buruz: motak eta kostuak zehaztea eta tratamenduaren justifikazioa.

Botika bereziak dira, Osasun Ministerioko Farmazia eta Osasun Produktuen Zuzendaritza Nagusiak onetsitako jarraibideen arabera erabiltzen direnak. Erositako prezioan ordaintzen dira, erantsitako margenik batere gabe, barne direla kontrasteak, odola eta hemoderibatuak, eta Eran-tin, horrelakorik behar den saio dializatzailetan.

Ondokoa da 1996. urteari dagokion laburpena, motaren arabera:

Odola eta hemoderibatuak.....	20.507.063
Kontrasteak.....	12.869.206
Zitostatikoak.....	17.816.921
Botika orokorrak.....	30.612.659
Dialisiaren botikak.....	12.342.332
Guztira.....	94.148.180

Urte horretako datuetan gora-behera bat (gero konpondu da) izan zen, eta "bestelakoak" kontusailan 5.000.000 pezetako zenbateko bat sartu

zen, izatez lerro horri zegokiona. Guztira, beraz, 94.148.180 pezeta dira, hemen zehaztu den gisan.

5. Protesiei buruz: zeintzuk eta horietariko bakoitzaren prezioa, eta baita fakturatu dituzten zentro edo lantegiak ere.

1996an fakturatu diren protesiak ondoko koadrokoak dira:

Taldea	Zenbatekoa	Hornitzaileak
Ortopedia	27.140.590	Protenor, Sumisan, Synthes, Izasa, Metisa
Oftalmologia	6.968.938	Braun Dexon, Allergan, Alcon, Equipsa
Kardiologia Taupagailuak	27.491.369	St. Jude Medical España, Biotronik, Cormedica, Izasa
Balbulak	7.145.237	Cardiva, Baxter, Disa
Besterik	6.637.834	Ilundain, Gaes
Otorrino	13.080.056	Ilundain, Gaes
Neurozirurgia	239.352	Gore, Prim S.A., Comercial Maturama S.L.
Urologia	683.979	Cook España, Boston Scientific Corporation
Zirugia	5.471.381	Bard de España S.A., Gore, Braun, Cook España
Ortoprotesien tailerra	4.234.874	Klinika Unibertsitaria
Guztira	99.093.609	

Argiago izateko, ondoko puntuak azalduko ditugu:

Ortopedia: barne hartzen ditu aldakako eta belauneko protesiak, bizkarrezurrari eusteko barra, plakak eta abar.

Oftalmologia: begi barneko lenteak eta bandak.

Otorrino: inplante koklearrak, belarriko protesiak, laringektomizatuentzako kanulak eta abar.

Urologia: nefrostomiarako kateterrak.

Zirugia: bularreko protesiak, sareak, Av.Shunt protesiak, Hickman kateterrak eta abar.

Ortoprotesien tailerra: agindutako ortoprotesiak eta Nafarroako Klinika Unibertsitarioan egindakoak.

6. Bestelakoak kontzeptuarekin agertzen den kontusaila argitzea, urtero egindako gastua zehaztuz eta justifikatuz.

"Bestelakoak" kontusaila 1996an honela azaldu daiteke:

Izena	Zenbat	Fakturazioa
Ekografiak	814	4.649.493
Proba imunologikoak	1.046	7.205.690

Medikuntza nuklearra	2.384	12.497.508
Liseri-aparatuko endoskopiak	4	202.000
Tratam. berezi anbulatorioak	1.117	8.307.823
Kimioterapiako saioak	261	3.949.075
Birgaitzea	4.494	6.709.300
Itundu gabeko probak	256	3.769.942
Emailerearen profila zehazt. probak	15	325.275
Guztira		47.616.106

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3an

Osasun Kontseilaria, Santiago Cervera Soto

Gurutze Gorriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Gurutze Gorriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak, "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeari atxikiriko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Gurutze Gorriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanari buruz egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau igortzen dizu:

1. Ba al da Gurutze Gorriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanik (hitzarmena...)? Halakorik bada, erantzunari erantsi.

Orain arte, Espainiako Gurutze Gorriaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanak bi erakundeen artean sinaturiko ondoz ondoko lankidetzaren hitzarmenetan bildutako xedapenen menpe egon dira. Aipatu tresna horietako azkena, 1992ko ekainaren 26an sinatua, Nafarroako Gobernuak salatu zuen, 1995eko abuztuaren 11ko Erabakiaren bidez, eta 1995eko abenduaren 31an bukatu ziren haren ondorioak.

Egun, ez dago inongo testurik erakunde horrek parte hartzen duen laguntza programetan bildutako prestazioen balizko hitzarmen arautzaileak sinatzea bideratzen duenik, baina Espainiako Gurutze Gorriaren Nafarroako Batzarrarekin ari gara lanean hitzarmen berri baterako proiektua adosteko; lan horiek epe laburrean bukatuko dira, baina oraingoz ez dago behin betiko testurik.

Egun, Gurutze Gorriaren Nafarroako Batzarrak ez du aurkeztu Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuan 1997an burutzeko jardueren programa orokorrik, eta horrexegatik ez da inongo hitzarmenik sinatu harekin.

2. Gurutze Gorriarendako aportazio publikoak: zenbatekoa.

3. Aurrekontuetatik egiten diren aportazioen banaketa Nafarroako eskualdeetan.

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak 1997rako aurrekontuetan 20.000.000 pezetako kontusail bat jarria du "Gurutze Gorriaren programetarako dirulaguntza" izenpean.

1996. urtean 16.534.493 pezetako dirulaguntza eman zitzaion Gurutze Gorriari.

Ondokoak dira aintzat hartu ziren kontzeptuak.

Garraio egokiturako programa 9.022.693 pezeta.

Erakundeari laguntzea 7.511.800 pezeta.

Garraio egokiturako programaren helburua da ezintasun mota ezberdineko pertsonak garraiatzea, garraio arrunta erabiltzeko modurik ez dutenak nahiz bestelako laguntzarik ez dutenak. Garraioak egokitutako ibilgailuetan egiten dira, laguntzako langileak dituztenak, boluntarioak

edo/eta gizarte prestazioa egiten ari direnak. Garraio horiek maiztasun ezberdinekin eskaintzen dira, beharra duten pertsonen bizilekutik lan egiten duten tokira, ikasten duten tokira edo laguntza zentzura.

Barne Zuzendaritza Nagusiak, 1996an, 13.880.187 pezetako zenbateko orokorra ordaindu zion Nafarroako Gurutze Gorriari. Horietatik 3.185.000 pezeta 1995eko laugarren hiruhilekoan erretentitutako ordainketak ziren (ondorenak) eta 10.695.187 pezeta 1996ko urtarrilaren 1etik abenduaren 15era bitartean egindako larrialdietako osasun garraioaren zerbitzuen kontraprestazio gisa. Argi dago, ordainketa horiek ez daudela loturik Nafarroako herri batzar edo eskualde jakin batzuekin, nahiz eta horiei atxikiriko giza baliabide

eta baliabide materialen bitartez egindako zerbitzuen kontraprestazioak izan.

Barne Zuzendaritza Nagusiari esleitutako zerbitzuak emateko Nafarroako Gurutze Gorriak joan den 1996ko abenduaren 15etik eman duen zerbitzuen kontraprestazioan, zenbateko bat dago oraindik ordaintzeko dagoena eta hurrengo hitzarmen sinatu bitartean atzeratuko dena, hain zuzen ere, hitzarmen berri hori indarrean sartu bitarteko aldi osoa hartzeko xedez.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetze-ko deialdia

Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda

1997ko ekainaren 18ko 73. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia. Horretarako eskaerak aurkezteko epea bukatu, eta aipatu deialdiaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, ondoren onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen da.

Onartuak:

Inor ez.

Baztertutak:

CIORDIA RUIZ, Lucía (1) (2)

MACIAS OTAEGUI, Cristina (1)

PLATERO CASTANERA, Rosa (1) (2)

VILLANUEVA MATEO, Jesús (1)

(1) Bazter utzia, deialdiko 2.1.b) oinarria ez betetzeagatik.

(2) Bazter utzia, deialdiko 2.1.c) oinarria ez betetzeagatik.

Iruñea, 1997ko abuztuaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--